

BAZENEKIEN...

...**arropa-garbigailuak** kontsumitzen duen energia gehiena (% 80-85) **ura berotzeko** erabiltzen dela.

...arropa-garbigailuaren **energia-etiketan**, besteak beste, **garbiketa** eta **zentrifugazioaren eraginkortasuna** eta **ura** eta **energia kontsumoaren** zenbatekoa agertzen direla.

... A+++ motako hozkailu baten kontsumoa B motakoak baino **%60 gutxiago** dela:

...**lehorgailua** gero eta gehiago erabiltzen den etxetresna elektrikoa

A+++ motatakoak **140 kWh/urtean, 23 €/urtean** izango lirateke


B motatakoak **360 kWh/urtean, 60 €/urtean** izango lirateke

dela erosotasun handia ematen duelako, baina **sekulako energia kontsumitzailea** ere badela


...**3 kontsumo txikiko lehorgailu mota** daudela merkatuan: **beroponpa** teknologia daukatenak, **gasezko lehorgailuak** eta **hozte ziklo mailakatuak** daukatenak, azken hauek lehorgailuaren hondakin-beroa aprobetxatzen dute arropa lehortzen amaitzeko.

...lehorgailuaren **energia-etiketan**, **hezetasuna kentzeko sistema** azaltzen da: **hustuketa bidezko lehorgailua** (eraginkortasun gutxi-koa) edo **kondentsaziozkoa** (eraginkorragoa).

Arropa-garbigailua



Lehorgailua



KONTSUMO ZENTZUDUN BATERAKO IDEIAK:

Arropa-garbigailua

1. **Ahal duzun guztietan, erabili tenperatura txikiko programak, edo ur hotzekoak**, kontsumo energetikoa erdira murriztu daiteke garbiketa bakoitzean.
2. **Komenigarria da garbigarri likidoak erabiltzea, garbigailuak lan gutxiago egin beharko du eta**. Garbigarri-hautsa erabiliz gero, hauek uretan nahasi ditzakezu.
3. Ahalik eta ondoen aprobetxatu garbigailuaren edukiera eta saia zaitez **karga betean erabiltzen beti**.
4. **Abiadura handian zentrifugatzen baduzu**, energia gutxiago beharko du gero lehorgailuak.
5. **Maiz garbitu arropa-garbigailuaren iragazkia**, hobeto funtzionatuko du eta energia aurreztuko duzu.

Lehorgailua

1. Lehortze ziklo bakoitzean **bereiz ezazu kotoizkoak eta astunak diren arropak arinak** direnetatik, lehortze denbora desberdina behar baitute.
2. Lehorgailua **premia handia dagoenean** edo **baldintza klimatologikoak baimentzen ez dutenean** bakarrik erabili.
3. Edukitzekotan, **“Lisatze puntua” programa erabili**, arropa ez du guztiz lehortzen, beraz, energia gutxiago erabiltzen da.

